

ARRAUNKETA. A Ligako bederatzigarren estropada jokatu da banderako lehen saioan



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Orioko trainerua, joan den igandean, Plentzian bertan behera gelditu zen estropadan.

Gauza asko jokoan Zarautzen

Orio, Urdaibai eta Pasai Donibane dira gaur faboritoak Euskadiko Txapelketa irabazteko

Ramon Basaldua | BILBO

Euskadiko Traineru Txapelketa jokatu da gaur, Zarauzko Banderako lehenengo jardunaldiarekin batera. Plentzian eguraldi txarra zela-eta Josetxo Fernandez Vaqueriza Euskadiko Arraunketa Federazioko presidenteak bertan behera utzi zuen estropadari berrekingo diote zortzi euskal ontzi onenek. Igandean ez bezala, itsasoa ez da harro egongo gaurko estropadan. Estropada eremua bare egonez gero, tarte gutxi izango da ezustekoetarako. 12:00etan hasiko da Zarauzko Banderako lehenengo jardunaldia, Trintxerpe, San Pedro, Zarautz eta Donosti-Arraun-Santiagotarrak traineruen arteko lehiarekin.

Bigarren eta hirugarren txandetako ontzien artean erabakiko da Euskadiko Txapelketa. Plentzian bezala, Elantxobe-Arkote, Isuntza, Zumaia eta Santurtzi izango dira txanda batean, eta Orio, Koxtape, Hondarribia eta Urdaibai bestean. Euskadiko txapelduna gaur erabakiko da, baina Zarauzko Banderaren irabazlea zein den bihar jakingo da, jardunaldi bietan denborak batu ondoren.

Gaurko estropadak jakin-min itzela sortu du. Zarauzko Banderaren denboraldiko garrantzitsuenetakoa da, Kontxakoaren ostean. Gainera, Euskadiko Txapelketa ere bertan erabakitzeko bada, estropadak sekulako

garrantzia hartzen du. Castro eta Astillero, Euskal Ligako azken estropada biak irabazi dituzten traineruak, ez dira izango Zarautzen. Astillero herriko banderan lehiatuko da gaur, eta Castrok bihar dauka Castroko Bandera.

Plentziakoa jokatu ez zenez, atsedean hartuta daude denak

Euskadiko Txapelketa bertan behera geratu izana —erabakia zuzena izan zen ala ez alde batera utzita— lagungarria izan da arraunlariarentzat, atsedean eta arnasa apur bat hartzeko aukera izan baitute horren zorroa den denboraldion. Gainera, denboraldia sasoi beroenera iritsita, ontzi guztiek orain arteko txandakatzek alde batera utzi eta koadrila onenak itsasoratuko dituzte gaur.

Urdaibai, Orio eta Pasai Donibane dira faborito nagusiak gaurko estropadarako. Orioi oso ondo etorri zaio Gipuzkoako txapelketa irabazi izana, eta apurka-apurka ematen du Altxerriren gizonak bide zuzena aurkitzen ari direla. Bestalde, gogoratu behar da Oriok irabazi zuela iaz Zarauzko Bandera, lehenengo jardunaldian Koxtape-ri ia 18 segundoko aldea kendu ostean. Bigarren jardunaldian, osterara, oriotarrak negargarri aritu ziren, eta banderaren galtzeko zorian egon ziren Hondarribiak irabazi zuen estropada hartan.

Urdaibaik historian sartu nahi du gaurko lehiari. Izan ere, 1985ean Euskadiko Txapelketa jokatu hasi zenetik, Bizkaiko traineru batek ez du irabazi bandera. Busturialdekoek sei bandera eskuratu dituzte aurretik, horietariko hiru Euskal Ligako A mailako estropadetan. Bou Bizkaia Orio eta Pasai Donibaneren aurretik sailkatu zen Ligako azken estropadan, Hondarribian. Bezperan, osterara, Ondarroan, Orio, Pasai Donibane eta Isuntzaren atzetik sailkatu zen. Busturialdekoek duten guztia jarriko dute Zarauzko Bandera irabazteko.

Pasai Donibanek garbi utzi du onen artean lehiatzeko moduko trainerua duela. Hala ere, Paco Prietok entrenatzen duen koadrilak ez du garaipenik lortu uztailaren 25ean Lekeition nagusitu zenetik. Zarauzko Banderako jardunaldi bietan pasaitarrek aukera ona izango dute eurengandik zer espero daitekeen erakusteko. Gauza bera esan daiteke Hondarribiko traineruari buruz. Mikel Orbañanosen eskutik Ama Guadalupekoak erregulartasun handia erakutsi du. Gainera, azpimarratzekoa da Hondarribia izan zela euskal traineru onena Euskal Ligako azken estropadan.

Isuntzako arraunlariak oso haserre agertu ziren Plentzian, estropada bertan behera utzi zutelako. Izan ere, lekeitiarrek

B LIGA

Zortzi traineru lehiari Astilleroko Banderan

Euskal Ligako B mailako estropada jokatu da gaur Astilleroko Banderan. Astillero, Santoña, Pontejos, Hondarribia B, Iberia, Algorta-Deustu, Zierbena eta Kiriko arituko dira. Astilleroko traineruak ez luke inolako arazorik izan behar irabazteko. Denaren, ez da ahaztu behar Pasai Donibaneri Pedreñarekin zer gertatu zitzaion Pasaiako Banderan.

Bestalde, hamabi traineruk hartuko dute parte bihar Castroko Banderan, B mailako estropadan: Castro, Santander, Algorta-Deustu, Hernani, San Pedro B, Pedreña, Ondarroa, Zierbena, Lutxana, Kaiku, Santoña eta Pontejos lehiatuko dira bihar Castron. Jose Luis Kortaren mutilek ez zuten Flaviobriga Bandera irabazterik izan, eta oraingoan ezin dute huts egin Castroko Banderan.

uste zuten Euskadiko txapelketa irabazteko aukerak zituztela. Pablo Fernandezek faboritoki ezustekoan harrapatu eta bandera irabazi nahi dute.

AIZKORA

Lau partaiderekin jokatu da Urrezko Kopa, Senosiain ez baita ariko lehiari



KOLDO ALDUNTZIN

Antonio Senosiain.

Koldo Alduntzin | DONOSTIA

Bihar jokatu da Donostiako Urrezko Kopa, Trinitate plazan (19:30). Hasiar, bost aizkolari ziren lehiari aritzekoak, ohi bezala, baina Antonio Senosiain nafarrak ez du aritzerik izango, eta, Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak hala erabakita, lau aizkolarik neur-tuko dituzte indarrak: Joxemiel Peñagarikanok, Donato Larretxeak, Joxemari Olasagastik eta Floren Nazabalek.

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko sailkapenean oinarritu izan dira KTEkoak Urrezko Kopako zerrenda osatzeko azken urteotan, eta hala egin dute aurretik ere. Hau da, iazko txapelketako lehen bost sailkatuak gonbidatu zituzten.

Senosiain bosgarren sailkatu zen, eta berari zegokion Trinitate plazan aritzea. Olaguekoa, ordea, gerriko minez jota egon zen santioetan, eta azkenaldian hobekuntza sumatu arren, prestakuntzaz ahul dabil; horregatik, uko egitea erabaki du.

Etxeberririk ere uko

Felix Etxeberria sailkatu zen seigarren Euskal Herriko Txapelketan, eta Sunbillakoari zegokion Senosiainen lekua betetzea Urrezko Kopan, baina jakina da Etxeberria ere osasun arazoekin ibili dela, eta ezina agertu die antolatzaileei. Lopez eta Jaunarena ziren hurrengo sailkatuak, baina nafarrek ere uko egin diote, 14 kanaerdiko ebakitzeko prestatuta egon behar baita.

Peñagarikano da bi urteotako txapelduna, eta Larretxeak du marka: 27 minutu eta 17 segundo.